

Iraide Sierra Campillo
"Animaliak asko gustatzen zaizkidenez nagusitan albaiteroa izatea gustatuko litzaidake"

# FLUGENTZIOREN XELEBREKERIAK.

Aldapa izeneko herrixka txiki batetan Flugentzio bizi zen. Flugentzio oso langilea zen: baserrian animalia asko zeuzkan gobernatzeko, Herriko Tabernako zerbitzaria zen eta traktore handia zeukanez, herriko jendeari, soroak prestatzen laguntzen zien. Denetarako denbora zeukan eta izaeraz, oso gizon xelebrea zen. Orain zuei Flugentzioren istorio barregarri batzuk kontatuko dizut.

Udaberriko goiz eder batetan, bazkaldu ondoren, mantizeta bila joan zen. Heldu zenean tokira, bi ale txiki ikusi zituen baina oraindik txikiak zirenez, bertan utzi zituen. Bi egun pasatu ondoren berriro joan zen



baina norbaitek aurrea hartu zion eta esku hutsik bueltatu

behar izan zuen. Handik hiru egunera, berriro joan zen eta

oraingoan lau ale txiki ikusi zituen. Berehala baserrira

itzuli, gasolina xiringa batean hartu eta siza habiara bueltatu

zen. Xiringarekin martizeta guztiei enbonetik gasolina sartu zien

pentsatuz: "ni martizeta gabe geldituko naiz, baina, horiek lan-

tzen dituena ere, ederto izorratuko da".

Hurrengo egunean, tabernan zegoela, gizon bat ikusi zuen

sendagilearengana zihoala tripako minez. "Hi izan haiz, berriro ez

haiz joango nire siza habiara, izorratu hadi" pentsatu zuen.

Flugentziok bazeukan Hamiko Taberna, egunero joaten

zen bezero bat. "Turko" deitzen zioten oso egoskorra zelako.

Gau batean "Turko" tabernara joan zen eta Flugentziori esan

zion:

— Haginetako mina daukat eta atera paitzan kopa bat.

Hiru ordu pasatu ondoren, han jarraitzen zuen "Turkok" haginetako

minez eta esan zion Flugentziori:

- Ai, ai,... Hagin hau ateratu banuke...



Flugentziok bodegan zeukan erreminta kaxatik alikateak hartu zituen eta "Tukorengana" joan zen.

- Ireki ezak ahoa, neuk aterako diat hagina eta.

Alikatearekin hagina atera ondoren, aienka joan zen "Tuko" bere etxera. Aste batean, "Tuko" ez zenez azaltzen tabernara, Flugentzio arduratuta zegoen. Bapatean "Tuko" azaldu eta hau esan zuen:

- Aste ederra igaro dut haginetako minik gabe eta gainera ez nintzenez hagin-lariarengana joan, zeri ordainduko dizut afari eder bat. Horrela ba, gau hortan kapo ajalduta joango gara ohera.

Beste behin, gabonak iristear zeuden egun batean, Flugentzio soroan zegoen lanean.

Halako batean, baserri inguruan gizon bat ikusi zuen marras-kilo bila. Gizona harri guztiak mugitzen zebilen eta bere marraskilo guztiak hartzen. Plugentzio berarengana hurbildu zen baina gizonak marraskiloak hartzen jarraitzen zuen, eta orduan esan zion:

– E, hi, nahi baduk sartu hadi ikuilura eta han zintzilik marraskiloz beteriko zaku bat dago. Har ezak nahi baduk – esan zion haserreturik.

Gizona, guztiz lotsatuta, joan zen baserri ingurutik.

Hurrengo baten istoria gehiago kontatuko ditut.

Hurren arte.







Mikel Bilbao Markaida
"Baserriko bisitza dut gustoko eta oso eskupilotarizalea naiz"

# ZURI TXAKUR ZINTZOA

Bazen behin, Zirilio izeneko gizon zahar-zahartxoa. Zirilio, antzinatik alargundu ta zegoen. Bi seme heldu zituen: Jon, zaharrena, Peru, ordea, gazteena.

Denak, elkarrekin, oso pozik, alaitsu, bizi ziren basoko etxola zahar-zahar batean hain maite zuten, Zuri, txakur zuriarekin. Zuri, semeek erositako txakur zintzoa zen bakardadeari aurre egiteko, lagungarri modura.

Udako egun eguzkitsu batean, goizero bezala, Zuri eta ugazaba Zirilio, semeak lanean zeuden bitartean, bueltatxoa ematera irten ziren.

Hain eguraldi ederra zegoenez, tipi-tapa, tipi-tapa aintzira baten albora heldu ziren.

Bertan, zuhur-zuhur begiratzen zien han zeuden dortokei, ahatetxoei...

Lasai-lasai zeudela, jantzkera oneko gizon dotorea hurbildu zitzaien eta galdetu zion ea bazekien non zegoen hiriko udaletxea.

- Bai jauna! - Ez dut jakingo ba!
- Neuk lagunduko dizut eta egon lasai! erantzun zion.

Bitartean, Zuri buztana mugituz zaunka eta zaunka zebilen.

Gizon gixaraxo hura zelan edo halan zutundu zenean, hiruak hirirako bidezantzi abiatu ziren. Bide zidor hartatik kontu kontari zihoazen.

Bat batean, zirilioentzat ezezaguna zenak zera galdetu zion:

-Non bizi zara?

-Ba... basoko etxola batean.

-Eta zu?

-Ni Madrilen. Bortatik natoz udaletxera papel batzuk itzultzera.

-Itzultzera?

-Udaletxera?

-Orlan honendik ez goaz



ondo. Baste hortatik joan beharko genuke.

Bueltatu ziren udaletxeko bidea hartuz. Ziri, ostera, ez zitzaion gustatu, zaunka eginez hortzak erakusten zituen, tokian bizia usaintzen zuen uoeumaku.

Ziri, horrela ikustean, zirilio ardurat egin zen.

Igurtzi egin arren, Zirik berdin jarraitzen zuen.

Ahoan tente jarriz, albotarantz begiratuz bi txakur gaizto zetozela ohartu zen "Rottwäler" bi ezezik, aurpegia estalita zuten bi gizon ere han zetozen.

Hura ikustean harrituta gelditu ziren.

Ondoren hatzak eta "ESKUAK GORA" esan zutenean dardarka.

zeuden. Tutik ulertu gabe, zuhaitzaren enborrean lotzen zeuden bitartean Zuri ziztu bizian Pereren lantegirantz abiatu zen.
Handik ordu laurdenera, lantegiko ate nagusiaren aurrean zaunka eta zaunka egon arren, ez zitzaion inor hurbiltzen. Kamporantza zetozen batek atikoka handik kendu zuen. Hala ere, berriro, harave hurbildu zen.
Han zegoen zaunka eta zaunka, goibel, negarrez, buztana mugitzen...
Handik gutxira, Peruk zaunkak entzun zituenean, kamporantz jo zuen.
- Ai ene, Zuri! - esanez, Jonengana joan zen.
Zurik ikusi zituenean pozik jarri eta bere honkatan korrikan zihoan, beste biak atzetik zihoazalarik.
Inork ez zuen hitzik esaten, bakarrik arnas estua entzuten baitzen.
Bat-batean Zuri geratu egin zen. Inguruva eztainez inguratuta ikustean, ez zekiten zer egin.
- Arraioa!
- Zer da?
- Pam Pam!
- Jon odoletan!
Tiroak Joni emon zion eta! Zer egin?
Peruk ospitalera eramon behar izan zuen.
Nolako urduritasuna! Ez zekien nola zegoen eta.

Bitartean, tiroak zetozkion burura. Lekura heldu zenean, ertzainek lapurrak atxilotuz, kartzelara eraman zituzten.

Bitartean, Zuri txakur okerrekin borrokatzen zegoen eta berak irabazi egin zuen, besteak hil egin zituzten eta!

Horrela, Zurik bere hagin zorrotzekin, Fiziliaren eta bestearen soka apurtuz aske geratu ziren.

Peru ikusitakoa sinetsi ezinean zegoen. Hizketan hasi eta, Jonengana, ospitalera joatea erabaki zuten.

Medikuekin hitz eginez, etxerantz alaitsu bueltatu ziren.

Eskerrak Zuri, esanez, poz-pozik zihoazen.

Mikel Bilbao



Amaia Oleaga
"Aiton-amonaren istorioak maite ditut"

# Maitasun txinparta

Orain dela urte pilo bat, nire aiton-amonak gazteak izan zirenean lagun talde bat zuten. Sei lagunek hartzen zuten parte talde horretan: hiru mutil eta hiru neska, denak Muxikakoak. Taldeko bi mutil ederrak ziren, altuak ez oso lodiak, baina nire aitona, taldeko itsusiena zen, baxua eta nahiko loditxoa, baina bihotz onekoa. Hiru mutiletatik bihotz onenekoa zen bera. Neskak politak ziren, altak, nahiko argalak eta zintzoak.

Behin, lagun taldea, Oiz mendira joan zen gaua pasatzera. Euren garaian ez zegoen lo-zakurik ez kanpin-dendarik beraz bakoitza bere mantarekin joan zen. Oizera heldu ziren eta bakoitzak bere ohea prestatu zuen; sei oheak borobilean jarri zituzten eta borobilaren erdian sua egin zuten. Iluntzean, suaren inguruan jarri ziren eta abesten hasi ziren. Halako batean mutil batek esan zuen:



– Zergatik ez dugu esaten nor gustatzen zaigun? Beharbada bikote-renbat sortuko da gure artean.

Denek baietz esan zuten. Hala ere, aitona Eugenio beldur zen, baitzekien denek lagun moduan nahi zutela baina ez bikotekide.

Mutilak hasi ziren. Juan-ek Andresa aukeratu zuen, Gregoriok Irene. Aitona Eugenio-k Irene esan zuen, baina bazekien bera eta Irene elkartzea zaila izango zela, Gregorio guapoa baitzen. Ondoren neskak zihoazen, Andresa-k Gregorio aukeratu zuen, Juanita-k Juan eta Irenek Eugenio. Aitona Eugeniok ezin zuen sinetsi bera aukeratua izatea! Bitartean besteak barre egiten zeuden eta Juanitak esan zuen:

- Ja ja ja... Baina Irene, esan egia ez gaude txantxetan! Nola gustatuko zaizu Eugenio bikote bezala! Ja ja ja...

Aitona Eugenio eta amona Irene mindu egin ziren.

Gaua iritsi zen eta denak lotara joan ziren. Beste guztiak lo zeudela amona Irenek esan zion aitona Eugeniori:

- Eugenio esnatu!; nahi al duzu buelta bat eman?

Aitona Eugeniok baietz esan zion eta biak joan ziren zuhaitz azpi batera hitz egitera. Gregoriok zeloak zituen eta beraien atzetik joan zen isil-isilik. Eugenio eta Irene hizketan zebiltzala Gregoriok amona Ireneri gona altxatu zion eta Irenek pentsatu zuen aitona Eugenio izan zela, eta matrailekoa eman zion. Gure amonarentzat ezkondu aurretik zirriak egitea debekatua zegoen eta aitona Eugeniorekin haserretu eta lotara joan zen.



Aitona Eugenio zuhaitz azpian gelditu zen buru makur. Denboratxo bat eman zuen pentsatzen nor izan ote zen amona Ireneri gona altxatu ziona, bera ez bait zen izan. Bitartean amona sinestu ezinik zegoen, momentu arterarte hain bihotz onekoa eta gero hain lotsagabea. Ez zuen hori espero aitona Eugeniotaz.

Aitona Eugeniok bihotz bat marraztu zuen zuhaitzean, eta bihotzaren barruan bere eta Ireneren izenak gero aitona Eugenio lotara joan zen, baina ezin izan zuen begirik itxi gau osoan ezta amona Irenek ere.

Gau hartan trumoiak hasi ziren eta halako batean tximista batek aito Eugeniok bihotza egin zuen zuhaitza erdibitu egin zuen. Zuhaitza sutan zegoen. Sei lagunek sua itzali zuten, baina bi izenen erdian txinparta bat zegoen. Zuhaitzak magia zuen! Tximistak bihotza zatitzean magia sortu zuen, maitasun magia.

Bakoitza bere etxera joan zen eta Eugeniok bidaltzen zizkion Ireneri, baina honek ezin zion barkatu, minduta zegoelako oraindino.



Suaren ondorioz zuhaitza erreta gelditu zen, hostoak guztiz zimelduta, baina egun batean zuhaitzaren hostoak berdetu egin ziren. Une horretan Irene Eugeniorengana joan eta berriro adiskidetu ziren.

Gaur egun amona Irene eta aitona Eugenio pozik bizi dira Maikako Noparrene etxean, hiru seme-alaba eta bi ilobarekin.

Egilea: Amaia Olaoga
Marrazkilaria: Amaia Olaoga.

Pello Intxausti Rodriguez
“Futbolera jolastea eta lagunekin egotea gustokoa dut”



# LAU SORGIN GAIZTO

Orain dela urte asko, lau sorgin petral, Aralarko mendialdean bizi ziren eta bertako kobazulo sakon batean lokartzen ziren goizero, gauez kantari eta gaiztakeriak egiten ibiltzen zirelako.

Gabon gau euritsu batean, lau sorginak herrirantz abiatu ziren, gaiztakeriaren bat egiteko asmoz. Eta horrela izan zen, herritar guztiak oherantz abiatu zirenean, opariak lapurtu zituzten baina ez zituzten beraientzat hartu, Afrikako ume gizarajo batzuei eman zizkieten beraiei ez kulpatzeko. Hurrengo goizean, herriko jendea



jaikitzerakoan, herriko inork ere ez zituen opariak aurkitzen baina erruduna aurkitzeko ez zuten asko pentsatu behar izan, seguraski, sorginak izango zirela pentsatu baitzuten. Orduan mendiko kobazulora igo ziren beraien bila, baina ez zituzten aurkitu, oraindik Agrikan zeudelako opariak uzten. Herriko jendeak, guztiz haserretuta, kobazuloko sarrera harriz estali zuten, sorginak bertara sar ez daitezen eta egindako minez konturatzeko. Sorginak bertara heltzerakoan kobazuloaren egoera ikusi eta beste toki baten bila aritu ziren alojatu nahian. Ibili eta ibili aritu ziren eta halako batean sorginetako gazteenak esan zuen:

-Zergatik ez dugu triku-harri bat eraikitzen? Horrela bertan bizi ahal izango gara.

-Bale! Oraintxe hasiko gara- erantzun zioten bi sorgin ertainek.

Baina sorgin zaharrena pentsakor zegoen, herritarren erantzuna ikusi eta gero. Asko pentsatu zuen eta orduan ulertu zuen beraien portaera txarragatik egin zutela hori he-



rritarrek. Orduan beste sorginekin ausnartu zuen. Eta berriro inori minik ez egitea erabaki zuten baina bigarrena ez zen Kongorme geldítu, bestela gogaitu egingo zela zihoen. Baina besteek beste gauza on batzuk egingo zituztela eta horrela ondo pasatuko zutela. Orduan euren magia erabili zuten, herri-tar bakoitzari bere opariak itzultzeko. Hortik aurrera, ez zu-ten ezer txarrik egin eta herriko jendearekin batera, gabon zaharretan mahatsak jan zituzten eta beraiek bizitako abenturak kontatu zizkioten. Orduan herritarren lagun egin ziren eta beste-ra joan ziren Aralarko Triku-harria mendi puntan utzita.

Urteak joan urteak etorri, Triku-harriak Aralarren jarrai-tzen du nahiz eta sorgin euskaldun hareek hilda egon. Eta ho-rrela, lehen inork ez zuen ikusi Triku-harri hori, orain ehun-daka pertsonek bizitatzen dute eta urtero, herriko jendea bertan batzen da haien omenez.

Pello Intxausti





Aiora Basterrechea Aguinaga

“Niri pianoa jotea eta animaliekin egotea gustatzen zait”

# AMETSETAKO AHIZPA

Etxera heltzean sarritan bakarrik sentitzen naiz; jolastea gustatzen zait bakarrik nahiz lagunekin, baina ez daukat neba-arrebarik etxean. Nire gurasoek asko maite naute eta asko laguntzen didate baina nik neba bat nahiz ahizpa bat gustatuko hartuko nuen.

Egun batean, Olentzero egunean, hitz egiten zuen panpina bat oparitu zidaten; asko gustatu zitzaidan eta horregatik pentsatu nuen jostailu hura izango zela falta zitzaidan ilusio bakarra beteko zuena, nire ahizparen tokia beteko zuena.

Nahiz eta denbora asko pasatu, urteak, panpinarekin jarraitzen nuen, berarekin toki guztietara joaten nintzen berarekin hitz egiten nuen; niretzako beste lagun bat etxean edukitzea zen, nire ahizpa izango balitz hartu nuen.

Hamar urte bete nituen arte gauza berbera sentitzen nuen panpinarengatik.

Gau hartan nire urtebetetze festa ospatu ondoren, ohera jo eta berehala amets goxo batekin loak hartu ninduen:

“Nere ahizpa nere berdina zen, biok arropa berdinak janzten genituen, ohe berdinean lo egiten genuen, eta izakera berdina geneukan . . .

Ikastolan biok dena berdin egiten genuen: Saski baloira jolastu, idazlanak idatzi eta biok oso formalak ginen. Biok aparteko mundu bat genuen, mundu hartan ez zegoen ez lagunik eta familikorik ere.

Denbora asko pastu ondoren, egun batean, ustekabeak, amak esan zigun biokin hitz egin behar zuela. – Zuekin hitz egin nahi dugu.

– Zuen aita eta ni banandu egin gara baina egon lasai; zuentzat irtenbide bat badugu.

– Zer egingo duzue gurekin?

– Pentsatu dugu Lorea aitarekin joatea eta Andrea nirekin gelditzea.

Orduan Andreak erantzun zuen: zuek biok batera sortu duzuena orain zergatik doa! Pikutara? zergaitik banandu?



Egun haiek oso gogorrak izan ziren guretzat; ezin genuen jasan gurasoen banaketak sortarazten zigun mina, baina sin egin genuen gure bihotzak ez zirela banandute. Banaketa hau ametsaren bukaera izan zen eta ohartu nintzen non nengoen eta nire egunerako bisitea normala zen.

Orduan konturatu nintzen ahizpa bat edukitzea baino garrantzitsu-agoa zela neukan familiarekin ondo konpontzea eta nituen lagunekin harremana ez galtzea.


Oso importantea da daukagun gauzekin konformatzea eta ez
ametsekin bizitzea.
EGILEA=



Asier Arias Lucio
"Txirrindularia izan nahi dut"

# Ahuntz Bidaiaria

Bazen behin Jose izeneko ahuntz bat. Jose Euskadiko herri famatu batean bizi zen; Gernikan.
Jose elurra baino zuriagoa zen, buztan luzea, adar gogorrak eta marroiak zituen.
Egun batean belarra jaten zegoela zerbait bururatu zitzaion: munduari bira ematea.
Hau buruan zeukala bere familiakoengana hurbildu eta honela esan zien:

- Familia munduari bira emango diot.
- Zoratuta zaude - erantzun zioten.
- Neu zoratuta, jakina ezetz.
- Mundutik zehar jende arriskutsua dago!
- Zuek lasai egon. Laisterarte!

Hori esanda Frantziarantz abiatu zen.
Frantziako mendi batean zegoelarik, Jose hiltzeko zorian izan zen, harri gogor baten ondorioz.



Ikara hura jasan ostean, Parisko Eiffel dorrerantz abiatu zen bigarren gaua igarotzeko asmoarekin. Lotan zegoela salto batez esnatu eta ... Hau zen da! Gerratea, Manifestazioa... izugarrizko zarata zegoen, errudunak kotxean, motorrak zirelarik. Gure Josek inoiz ez zuen hainbesteko zaratarik entzun, haren aurpegia olerki bat zirudien.
Josek hainbesteko kilometro gora eta behera egin ostean bere tripak izugarrizko burbuila egiten zuela konturatu zen, eta bere buruari galdezka hasi omen zen:
-Zerbait jan beharra daukat?
-Baina non lortuko dut janaria?
-Hemen inork ez nau ezagutzen eta?
Orduan zakarrontzietan bilatu eta bilatu ibili ondoren Joseren tripak egoera onera itzuli ziren, eta ez bakarrik Joseren tripak bere aurpegia ere beste itxura bat zeukan.
Jan ostean Luxenburgorantz abiatu zen, baina muga pasatu ezinean aurkitu zenez, gauerarte itxaron beharra zeukan.
Luxenburgon zegoela baserri bat aurkitu zuen, bertan izugarrizko belartza zegoenez, astebete on bat pasatu eta Alemaniako hiri batera ailegatu zen. Negua heltzear zegoenez baserri bat

bilatu behar zuela bere burua baleentako pentsatu zuen. Menditik txistuka, saltoka..., zebilela han non ikusten duen urrutian Kriston baserria eta zistu bizian ate aurrera ailegatu zen. Baserri hartan negu guztia pasatu ostean, Poloniarantz abiatu zen; Poloniako jendea beti zebilen leku batetik bestera korrika eta saltoka, ez zen Euskadiko jendearen modukoa (Lasaia, motela...).
Polonian urte bat igaro zuenean, Errusiara joan zen, bertan aker bat aurkitu eta elkarrekin hitzegiten hasi ziren.

- Nor zara zu? - galdetu zion akerrak
- Ni Jose naiz.-
- Nongoa?-
- Gernikakoa.

Han ibili ziren elkarri galderak egiten eta azkenean biok Euskadira etorri ziren ezkontzera.
Egunak joan egunak etorri gero eta politagoa zen haien arteko maitasuna, laster isladatu zen maitasun hura izan ere ahuntxume bat izan zuten, Gernikof izenekoa.
Familia honek Gernikan bizitza eraman zuen eta oraindiño haien animaliak hortik dabiltza

Asier Arias
10 urte





Jaione Onaindia Rodriguez

"Animaliak eta irakurtzea ditut gustoko"

# JONEN AMETSA

Domeka eguzkitsua zen. Jonek, domekero bezala, amamaren etxera joateko asmoa zuen, hark kontatzen zizkion ipuin harrigarri eta misteriotsu horietako bat entzutera. Bost urte zituenetik ez zuen inoiz aukerarik galdu bere amamaren ipuinak entzuteko; gustukoagoa zuen haren etxera joatea lagunekin egotea baino.

Egun hartan, beti bezala, amama ikusteko irrikan zegoen jaiki bezain laster. Baina Jonek bazekien amak ez ziola utziko amamaren etxera hain goiztik joaten eta, beraz, aitzakiren bat erabili beharra zuen. Orduan, lehenengo Lukas (horrela deitzen zen bere txakur zintzoa) ateratzera joango zela esatea burutatu zitzaion. Ahal zuen azkarren jantzi eta gosaltzera abiatu zen korrika Lukas atzetik segika zuela. Sukaldera iristean honela esan zion amak:

—Egun on, Jon. A ze azkar jaiki zaren! Inoiz ez zara hain bizkor prestatzen; gaixorik zaude ala?

—Ez ama, ez dakizu zein egun den ala!

—Noski baietz, baina ez dakit zertarako duzun horrenbeste presa!

—Zertarako? Lukas ateratzeko! Ez al duzu ikusten urduri dagoela kanpora noiz aterako— esan zion Jonek, lehenbailehen etxetik ateratzen utz ziezaion.

—Beno, horrela bada, joan zaitezke— erantzun zion amak— —baina etorri hainbat arinen— gaineratu zuen.

—Baina ama, Lukas atondu ondoren amamarengana joango

naiz astero bezala.

—Ia ahaztuta neukan. Eman goraintziak nire partez eta etorri etxera amonak kontatutako ipuina bukatu bezain laster.

Pozarren nahi zuena lortu zuelako, arrapalada batean abiatu zen amonaren etxerantz. Behin hara iritsia zelarik, honela esan zion amonak:

—Kaixo, Jon. Ipuin berri bat entzuteko prest? Gaur kontatuko dizudana, nire ustez, oso gustokoa izango duzu. Eta orain eseri, hastera noa eta.

"Bazen behin dragoi maltzur batek inguratuta zeukan herri txiki bat. Dragoi honek ez zuen uzten herrira inor sartzen ez irtetzen eta herritarrak zer egin ez zekitela zeuden beldurraren-beldurrez. Beste herriei laguntza eskatzeko modu bakarra usoen bidez mezuak bidaltzea zen. Baina, zori txarrez, herritik hegan irteteaz batera, dragoiak ahotik jaurtitzen zuen suaz kiskaldu eta jan egiten zituen. Behin, bi uso soilik geratzen zitzaizkiela ikustean, herri hartako erregeari ideia hau bururatu zitzaion: usoak banaka askatu beharrean, batera askatzea. Horrela dragoiak bat harrapatzen zuen bitartean, besteak ihes egiteko aukera izango zuen. Usoek zeramaten mezuan, dragoiarengandik askatzen zituen gizonak herriko neskatxa ederrenarekin ezkontzeko aukera izango zuela jartzen zuen. Halako batean, askatu zituzten usoak eta haietariko bat nekazari gazte eta ausart batengana heldu zen.

Jon erabat liluraturik zegoen ipuinarekin eta, hain zegoen sartuta historian, nekazari hura bera zela amesten hasi baitzen.

Nekazariak mezua irakurri ondoren —jarraitu zuen amonak— herri hura askatu ahal izateko era ezberdinak asmatzen hasi zen. Asko

pentsatu eta gero, Katapulta baten bitartez dragoiaren gainetik salto eginez herrira sartzea erabaki zuen. Horrela bada, herriaren inguruan zegoen muino baten kokatuz Katapulta, salto egin eta herrian zegoen belar-meta baten gainera heldu zen. Hura ikustean, herritarrak asko poztu ziren eta dragoiarengandik libratzeko zein plan zeukan galdetu zioten. Nekazariak laster jakinarazi zien bere amarrua. Herrian zituzten oilo guztiak etxe bateko teilatu batera igo behar ziren. Dragoiari, denak batera irentsi nahian, ahoa lumaz beteko zitzaion eta momentu hura aprobetxatu behar zuten herritarrek sarea bota eta harrapatzeko.

Herritarrek begi onez ikusi zuten nekazariak esandakoa eta lanari ekin zioten. Zorionez, dena atera zitzaien nekazariak aurrikusi bezala eta, agindu bezala, herriko neska ederrena prest zegoen berarekin ezkontzeko. Maitasun froga bezala musua eman zion nekazariari.

Jonek bere ezpainetan sentitu zuen musu hura, baina bapatean harriturik konturatu zen ez zela neska musukatzen ari zitzaiona, Lukas baizik.

— Jon! Jon! Lotan geratu zara laztana. Bukatu da ipuina.

Egun hartatik aurrera, Jon oraindik gustorago joaten zen amumaren etxera horrelako ipuin zoragarriekin murgiltzeko irrikaz, Lukasekin noski.



GERNIKA-LUMOKO UDALA
Hezkuntza Arloa

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA (HPS)

Bizkaiko Foru Aldundia
Kultura Saila
Euskera Zuzendaritza